

# LONDRESEKO HILKETAK

## 2015eko abenduaren 4a

Gaur ume bat bere amarekin *Cleopatraren* orratzean zebilela, umea lo zegoen gizon batengana hurbildu da esnatzeko asmoz. Burua ukitu dionean, burua jausi egin zaio gorputzetik. Kasu hau tokatu zait argitzea. Ez dakit nork egin duen, ez eta zelan izan den eta non gertatu den ere, dakidan bakarra da kasua ez dela besteen modukoa izango.

## 2015eko abenduaren 5a

Gure biktima Andreu Mcglane deitzen zen eta New Yorken jaio zen. Orain dela 5 urte hona etorri zen lan egitera, pub batean zerbitzari moduan. Ez zuen familiarik. Bere lanera joan naiz eta esan didate 5 egun zeramatzala lanetik azaldu barik, eta ez zuela inorekin arazorik. Haren bankuko kontua begiratu dut eta ez dago ezer susmagarririk. Oso arraroa da norbaitek hil nahi izatea!

## 2015eko abenduaren 6a

Gaur beste biktima bat aurkitu dute parlamentuaren erlojuan zintzilikatuta eta bururik gabe. Biktima hau Maria Rodriguez deitzen zen eta Mexikon jaio zen. Orain dela 6 urte etorri zen lan egitera. Biktima honek ez zuen familiarik, eta aurreko hildakoa bezalaxe pub bateko langilea zen. Kamerak ez du hiltzailea grabatu. Argituko dut zelan sartu den parlamentura gorputz eta guzti.

Erlojuaren barruan odola zegoen, eta horrek esan nahi du heriotza bertan gertatu zela. Baina zer egiten zuen zerbitzari batek parlamentuan?

## 2015eko abenduaren 7a

Hildakoen etxeetara joan naiz gaur. Bi etxetan gutun bera aurkitu dut eta hau jartzen zuen:

“Zuregana noa eta ezin duzu ezer egin. Ezin duzu zure bizitza salbatu, ihesean aurkitu eta hil egingo zaitut. Baina lasai egon, zure gorpua gauza askotarako erabiliko dut,

eta turistei erakutsiko diet hau ez dela ez bisitak egiteko ez lan bila etortzeko leku segurua. EZ DEITU POLIZIARI, BESTELA ARINAGO HILKO ZAITUT.

P.D. Bi egun dituzu zure ametsak betetzeko, baina bi egun barru, 12:00ak heltzen direnean, zuregana joango naiz”.

### **2015eko abenduaren 8a**

Gaur hirugarren biktima bat izan dugu Buckingham jauregiko atean, eta aurrekoak bezala bururik gabe. Hirugarren honek Aiora Bengoa zuen izena eta Euskal Herrian bizi zen, asteburu pasa zegoen Londresen. Hotelean eskutitz berbera zuen.

Gainera, gaur, aurrez hildako bien autopsiak heldu dira. Biekin anestesiarako erabiltzen den gaia erabili dute, eta neurri oso altuetan, baina ez gizaki bat hiltzeko beste. Arraroena da organo batzuk falta zaizkiela, eta ez direla atera zirujiaren bidez. Gero, burua mozteko aizkora bat erabili du eta harekin bost aldiz eman die. Andreu abenduaren 3an hil zen eta Maria berriz 5ean.

Nire teoria da hilketa baino 2 egun arinago gutuna bidaltzen diela, eta gero 2 egun pasatutakoan hiltzen dituela. Anestesia ipintzen die burua zelan mozten dien ikus dezaten, eta gero, egipziarren moduan, beraien gorputzeko zulo batetik kako bat sartu eta batetik bestera mugitzen uzten ditu, organoa likido bihurtu arte, gero ateratzeko. Baina ezin ditu saldu, likido bihurtuta daudelako.

Hurrengo gauean lekuz aldatzen ditu. Seguruenik, beraien buruak sari moduan gordetzen ditu. Baina, zergatik ez zen geratu Andreurenarekin? Hori argitu beharra daukat, baina nire teoria oker ez badago bihar beste pertsona bat hilko du.

### **2015eko abenduaren 9a**

Aioraren gutunaren azpialdean hiltzailearen aztarna bat zegoen, eta gutunaren aztarnari izena jartzen badiogu gure hiltzailea aurkituko dugu. Gaur arratsaldean analisiaren emaitzak heldu dira eta gure hiltzailea Jonh David da.

Bera pabiloi abandonatu baten jabea da. Pabiloi hori ederra da hiltzeko, ez dagoelako kamerarik ezta jenderik; orduan, berarengana joan gara. Heldu garenean gizon bat zegoen bururik gabe, eta Jonh bere organoak ateratzen egon da. Atxilotu egin dugu, eta galdeketa bost minutu pasa ostean dena aitortu du, eta oso harro zegoen egindakoaz. Berak pentsatzen du etorkinek eta turistek ez dutela enbarazu besterik egiten eta hemendik bota egin behar direla. Baina nik ez dut uste bera izan denik, bera eskumatia delako eta gure hiltzailea ezkertia, baina hilketen detaileak eman ditu. Nik ezin dut ezer egin, baina ahal dudanean benetako hiltzailea aurkituko dut...